



AIARAKO UDALAK 2023ko EKAINAREN 14an EGINIKO EZOHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

UDALBURUA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo Vadillo jauna
Montse Angulo Solloa andrea
Itxaso Gorbeña Allende andrea
Unai Campo Arenaza jauna
Karmele Población Martínez andrea
Marian Mendiguren Mendibil andrea
Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hamalauan, zortziak eta hamabost direnean, Udalbatza Osoa bildu da ezohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU:

Susana Martín Benavides Andrea
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna
Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2023ko maiatzaren 2an eginiko ezohiko osoko bilkuraren akta.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, 2023ko maiatzaren 2ko ezohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da. Akta hori bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 8 daude ekitaldian).

2.- Onestea, bidezkoa bada, 2023ko maiatzaren 18an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Horri buruzko iruzkinik egin gabe, 2023ko maiatzaren 18ko ohiko osoko bilkuraren akta bozkatu da. Akta hori bertaratutako zinegotziek aho batez onartu dute (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 8 daude ekitaldian).



Eta jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du zortziak eta hogeita minutu direnean, eta aztertutako guztia jasota gera dadin, idazkari naizen honek hori egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita hiruko ekainaren hamalauan.

O. E.

ALKATE-UDALBURUA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

IDAZKARIA,

Sin.: Naiara Lazpita Marcos